

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKAL HERRIAN BARN

Literaturaren «Euskal Sariak» Donostian

Donostiko AGORA izeneko Elkarteak azken urtetan bezala aurtzen ere «1972-go Gizonko Literaturaren Euskal Sariak» antolatatu ditu. Bi dira. Bakoitzak berrogeita hamar mila pezeta izanen ditu. Bata «Ensayo» delakoarena eta bestea «Teatro» rena. Lanak bidaltzekotan irutan eginak izan beharko dira eta igorriak, bi tartekora makinaz idatziz gainera. Lanak artzeko epea 1973 urteko Urtarrilaren azken egunean (31 ean) amaituko da.

Oitura denez idazlan bakoitzaren batera «pika» delakoa bidaltzeko behar da zuzenbidetara: AGORA Victor Pradera kalea-10-2. Donostia.

Oinarriak eta beste gainerako xehetasunak eskatzen dituztenei AGORA Elkarteak bidaltzeko dizkio. Edozeinek eska lezazke goian esandako zuzenbidetara idatziz eta eskatuz.

Bera eta Lesakako berriak


Bidaso altetik berri pozgarriak etortzen ari zaizkigu azken denbora hauetan.

Bera'ko Elkarte den «Gure Txokoa» bertako Aitumenduarekin batera «Pio Baroja» izeneko euskeraz edo erderaz idatzitako lanen Sariak antolatatu ditu, erdal nobela egile famatu hau sortu zenetik ehun urte betetzea ospatzeko.

Asmo txalogarri honek idazle berriak atera nahi ditu. Azken «Euskal Orri» honetan euskeraz idatzitako DEIA argitaratua eman gure adineko eta gaztetxo euskaldun idazleak jakin zezaten. Bi klaseta-ko Sariak daude jarriak: adinekoentzat eta amabost urte bete ez dituztenentzat. Adinekoentzat irabaztaileak amabost mila pezetako Saria jasoko du eta gaztetxoentzat Lehenengoak bi mila ta bostehun pezetako artuko ditu.

Berriz ere Sari hauek jarri didut hemen gure euskal izkribitzaileak gogan artu ditzatela.

Lesakatik ere baditugu zerbitu esateko beharra: Lesakako «Beti Gazte» Elkargoak euskeraz ikasteko ikastaroa antolatatu du. Gazte multzo ederra biltzen da egunero euskeraz menderatzeko beharrez. Elkarte hau



ere zenbait euskal kantu, irakasten hasia da. Esatera bat atera du bere asmoaren zabalokunde gisan: «Astero euskal abesti bat ikas dezagun». Eta... noizko bidasotarrak ikastolak?

Euskeraz ikasten Tudelan

Tudelako Aitumenduaren «Dantzari taldea»-k antolatutik euskeraz irakasteko klaseak ari dira ematen gure Erriberako Hiri Nagusian.

Tudelako dantzariak bere Aitumenduari euskal klaseak emateko toki egokia eskatu zitoten eta Herriko Etxekoak aho batez onartu zuten beren dantzariak nahi zuten.

Badute euskal irakaslea: Errentariako andereño bat da.

Nere goresmenak Tudelako dantzariak bere euskeraren aldeko egintza txalogarri honengatik eta Tudelako Aitumenduari ere eman dituen errezatasunarengatik.

Jose Mari Sarrutegi Deustuko Inibersidadean

Deustuko Unibersidadeko «Euskal Mitologia»-k «Euskal Etnologia eta Etnografia»-ri dohakion ikastaro bat antolatu du. Urdiango Erretore eta «Euskal Orri» honetan txeto asteoro idazten duen gure adizkide mifiko den Jose Mari Sarrutegi jaunak euskeraz ikastaro hau ematen du. Iragan den Azaroaren 27'ean ari zuten eta bier. Abendu-ko lehenengo egunean bukatzen da. Lau egunetan ematen ari da. Orduak arratsaldeko zazpi terdieratik bederatzir terdierara. Txit berandu izaten bada ere ikastaro honen berriak agertzeak merezi zuten.

ikusio

AXULAR SARIA

OILLOA

Gertatu zen herri batean, Obispo Jauna etortzen zan konfirmatzen. Oitueran zan oillo txuri bat ematea Obispo Jaunari.

Baño herri guzian ez zegoen oillo txuri bat. Bazagon bat baño harrek pluma beltz bat zuan, eta harrek ez zuan balio.

Orduan oilloa artu eta aldemeneko herria joan ziran bi emakume ia ordaintzeko zitoten beste txuri baten alde.

Eta herri hartan baliez esan zitoten. Oilloa artu zitoten, ikultura eramane zuten ta pluma beltza kendu eta len-go oillo bera eman zitoten emakume haiari.

Emakumeak esan zuten: hauxe da guk nahi giñun oilloa. Eta azalekin ipurdiari jotzen beren herria itzuli ziran.

Luis Mari Ochagabia

Arruazu

EGUBERRI ON

Urte berrietan Patxi erran zion lagunei:

—Inbar diegu besta bat ta mozkortu biar diegu. Turrinak extik mozkortzen bano ardoak bai.

Hartan Bitorrek erraten du:

—Orduen nik karrikoyet turronea, ik kartzak ardoa ta ik kartzak nabal mozteko turronea, ta yan ta edan behar diegu eta gero kantatuko diegu.

—Turronea ta ardoak mozkortzen dik, ta eguberrietan inen diegu besta bat, ta eztegu inori enbidik izelin.

Ta hartan Jabier-ek erraten du:

—Yango diegu lana egiten badiegu, ta bestela eztegu bestik eginen.

Ta hartan Bitorrek erraten du:

—Hil ta ondano eztegu zopik behar.

Ta hartan erraten du Patxi Bitorri ta Jabierri:

—Erregetan errege zerbitu utziko digu?

Ta Bitorrek hartan erraten du:

—Nor tuk erregeak?

Ta Jabierrek:

—Meltxor, Gaspar ta Baltasar.

Ta hartan erraten du Patxi.

AITA ta AMA.

MIGEL MARI MARTIARENA

ARIZKUN, 11 urte.

GURE IKASTOLAK (VII)

LEHENBIZIKO IKASTAROAK

Euskeraren aldeko Erabaki hura, 1967-koa alegia, Nafarroako euskeraren egoera ongi aztertu eta ikusi ondano egin zen. Herrialde askotan euskerak galduta berria zen; beste batzutan lehenago. Herri batzuk mintzatzen zuten eta beste batzuk utzia zeukaten. Nundik hasi jakin behar zen. Dena galduta duenak, galtzekorik ez dauka eta erdi galduta zegoen lekutik hasi beharra zegoen.

Garrantzi haundieneko puntuak bezala Ultzama, Elizondo, Santesteban, Leitze, Lekunberri, Irurzun, Etxarri-Aranaz, Altsasu, Auritz, Aezkoa eta Otsagi alpatzen ziren. Lanbide zabala. Ez zen dena egingo. Etxarri, Altsasu eta Leitzen emah ziren ordu erdiko ikastaroak. Ultzama erabat mozkorra atera zitzaigun orduan; ez zegoen ezer egi-terik. Zoritxarrez hura izan zen lehenbiziko eskola bateratua, eta ez zen euskerarik entzun etxe barnean; eta gogorik ere ez zen ikusten.

Doneztebekoa marrazki beltzein idatziko da Nafarroako gertakizun negargarrien artean. Kondairak idazten joateko gertaeren berri ematen ari naiz.

Hauetxek halare, duela zenbait urte gertatutako gauzak dira. Ba dirudi orai gauzak beste alde batera izan beharko lirakela, Zoritxarrez, ez da hala. Puntu askotan berdin jarraitzen dugu. Orain, azken egun hauetan, Aezkoako maisu batek ez du bere eskolan euskerazko ikasgarik ematen, utzi. Bere ikastordutatik kanpo eta haundientzat ziren; eta ezte erantzun du. Aezkoa, ez ahanzi, 1967-ko herrien artean euskerak emateko aukeratu zuen Diputazioak; eta gaur, bost urte luzer buruan, hortan gaude. Gure herriakotik maisuen giroak beste nolobait mintzatuko naiz.

Ordu erdiko ikastarotik ikasi ginuen hauxe izan zen: gutxi dala, txikitatik ikasi ez den gauza batez jabetzeko; eta ez dutela gero jarraipenik izan. Euskerak gailu emango zitzaizkien, baina euskal giro gutxi, nundait. Euskeraz gailu atera da; eta euskaldun bat ere!

Baina, lurra iraultze sakon bat izan zen. Geroztik sortua da haurrei txikitatik euskerak erakutsi nahia. Egreintza ona izan zen beraz, eta gaurko ikastolak sortzen hasteko epelkia ekarri zuen, osturik zegoen gure lurraldean. Zerbait da.

Sagi

CALIFORNIA - KO 1893 URTEKO

Joan den mendean ezpe-
tar bulartsu batek, Goytino
jaunak, LOS ANGELES-en
askeari bat fundatu zuen, es-
kuzaz dena. California-ko
Eskualherria izenarekin.

1893 urtetik 1897 urtera
iraun zuen; eta bere berrien
arteak, Nafarro-Lapurdi dau-
den azuk beren ahaiden bat
ezagutuko dutelakoan, he-
men alpatu nai dugu; bai eta
merzi laudorio eta oroliza-
pene egin nai, Goytino eta
Biscailuz euskaltzale bihotzu-
neri.

Urte guti lehenago, ES-
KUALDUNA asteakaria Bai-
onan atera zuen Etxeberri
jaun batek, 1885 urtean. Be-
rez, Ameriketara sentitu zu-
ten euskaldunak hemen be-
zain laster. Los Angeles-ko
paper eskualduna, berriez
kanpo, hango eta hemengo
eskualdunen arteko berrien
gainera, Hearen (artilearen)
merkatalgoaren berri ema-

ten du, zehetasun bitxi ba-
tuekin. Komentarioak ere
oso interesgarri dira, ordu-
koen ideien arabera; gei-
nean konserbakarien ideiak,
demokratik sahestuz, bai-
nan inoiz ere, hemengo
euskaldunen estiloko; or-
duan Europakoak, gerla izi-
garri bat pasatuak ziran,
karlostarrak geienak, eta
ikusmoldea ere etzen zaba-
legi.

Hemen Europan gutik eza-
gutuzten dute California-ko
aldizkari hori; VINSON-ek be-
re Bibliographie audian ha-
ren alpainak ekartzen du
xol-xolia, eta guti gelago ja-
kiten da. Beraz pitxi bat da
gure artekoentzat; micro-
film batetik kopiak atera izan
dira; bata Reno-NEVADA-
n, bestea Baionako Mu-
seo basque delakoan eta bes-
tea Pariseko Bibliothèque na-
tionale-an, uste onean baldin
bagaude.

Irakurle nafarren atsegi-
rako, nolizean behin, zati ba-
tzu eman gogo ditugu; huna
orain, lehen numeroa ti-
tuloa eta GOYTINO buru-
giaren agur amiltzua; gure
ortografiara apur bat apaia-
tua, deus aldatuzkanik bate-
re gabe itzaten:

CALIFORNIA-KO

ESKUALHERRIA

Berriketari Eskualduna
agurtzen dena Larunbate
guziez. Lib. 1. N. 1. Los An-
geles, CALIF. Uztailaren 15.
1893.

ESKUALDUNERII:

Egun argitaratzen dugu,
lehen aldikotz, berri-ketari
hau, gure herriarren onetan.
Bertze nazioe guzietek beren
kazetak badituzte eta gu hain-
bertze garelarik hedatuak Pa-

cifico-ko kostan, ezda yustu
baizik yunta gaiten denak be-
rriketari guzietari; laguntza
arin betekin izanen dugu las-
ter berri-ketari sano bat,
egulazti eskualduna bai ma-
nerez eta bai sentimenduz.
Gure indar guziaz, gure mint-
zo ecarren medior, gure
bertzearen berriak yakiten
ahal ditugu gure lekutik igui-
tu gabe.

Paper hau agurtuko da as-
tean. tchin. Bihotzaren erdi-
tik eregomentatzen dugu
Herriar guzietari; laguntza
arin betekin izanen dugu las-
ter berri-ketari sano bat,
egulazti eskualduna bai ma-
nerez eta bai sentimenduz.
Gure indar guziaz, gure mint-
zo ecarren medior, gure
bertzearen berriak yakiten
ahal ditugu gure lekutik igui-
tu gabe.

Sekulan baino guelago gure
hizuntze zaharra hari da
hedatzen mundu izkinean.
Allemenia-ko hiri nausian,

Berlin-en Eskualdun paper
bat EUSKARA deitzen dena
agurtzen da. Ilabete guziet
Europa sabant (jakintsu) fa-
matuek iskribatzen dute
paper hortan eta hekien ar-
tikuluak leituak dire plazere-
kin, erresuma guzietan.

Ameriketara, kazeta eska-
ludun sortzen ari dire-emeki
bainan segurki Habana-ko he-
rritarrek beren LAURAK
BAT badute, Espainiako laur
probentziatiko semeen oho-
retan. Bagura Californian be-
rean, borts mila Eskualdun
bederen. Bortzetarik batek
paper hau harturik, CALI-
FORNIA-ko ESKUALHERRIA
hedatuko da laster, eta
denbora, laburrez berri-keta-
ri alpatu bat izanen da.

Hortakotz galdatzen dugu
gure herriar guzian laguntza
eta borondate hona. Paper
hau edatuz, gure sorleku

maitea ohoatuko dugu, eta
gure mintzo xoragarria.
Edo hitz batez erraitoko:
Eskualdunen eskutan dugu
CALIFORNIA-ko ESKUALHE-
RRIA uzten; non izanenen
da leku obeagokoa?—J. P.
Goytino.

Egillaren arkibidea Los
Angeles-etan: 330 New High
Street. Barreazaleen aurki-
bideak: Los Angeles-etan,
Mr. M. Ordoqui, 300 Aliso
karrikan. Mr. D. Larrondo,
515 New High karrika. Id.
Mr. D. Hiriart. 312 Aliso ka-
rrika. San Francisco: Mr.
J. F. Yparraguirre. 1312. Po-
well karrika. Tehachapin:
Mr. J. Irbarne. San Diego:n:
Mr. P. Echeverry. 628-5 ga-
rren karrika.

Gero segituko dugu gelago
ematen, anunzioak eta berri
bitxiak.

A. APAT ETXEBARNE

ASTEKARI EUSKALDUNA

GOIZUETA'KO BETIXOAK

ko dute. Ixtanpa batetik
bestera ementxe daude, ori
dana esanez.

Ustekabea, nun gurega-
na ekarriko dituzten men-
diko bel basatiak.

Bazpaze, toki babesean
jarri giñan. Mendiarren goi-
ko aldatik zetorren oia
entzuten gurean, baita gi-
zonak belen atzetik batetik
bestera tximistan antzera
korrika zijoatela ikusi ere.

Bel multzo bat zekarkiten
lasterka. Berealaxe antze
zeuden gure aurrean, de-
nak batean. Kea dario ze-
tozen itxututa bezela. Iku-
luko atea irikla zeuketela
antxe sartu ziran beste
ifun gelditu gabe.

Nunbait bel bat zeukaten
aragitarako saltzeko ta no-
la bakarrik ezin dituzten
ekarri, saillean bear. Bela
lotu zuten eta besteak men-
dira berri bidaltzekotan
zeuden. Lasal larrean ibil-
zen diran bezela ikusi nai
genituen. Aien, aurretik
atera giñan eta geroxeago
gure ondolik bidali zituz-
ten. Aldapa gora, lasterka
igo ziran bat batean. Pifu-
di tarte batetik ikusi genit-
uen etortzen.

Golan, zezena atzetik zu-
tela, errenkan zitzaoten.
Betixuak ikusita, pozik
gelditu giñan. Aberrori
politik dira, txikiak, adar

zorrotzak in le luzez be-
teak basurrien antzera ta
oso azkarrak, garai bate-
ko gure mendietako belak
era bat basatiak. Umeak
daukatenean ezin urbildu.
Ura jaiotzen dan tokitik, itu
rritik bakarrik edaten du-
te. Orregatik dira ain piz-
korak. Gaur bakandu di-
ra. Ipar aldeko Euskale-
rrikan, Larun mendian ba-
karrik daude ta Nafarroan
Goizueta'n besterik ez eta
auk.


Mertxeneko baserrikoak
ditugu. Errege bide gailu-
ko aldean dago etxe gailu-
ta au, erri sarreran sartal-
de aldetik. Arria arrosa ko-
lorea dauka. Bertako na-
gusia Eusebio Eskudero de-
gu, 65 urteko gizona. Lau
seme ta alaba bat ditu. Gi-
zon oneri esker, daude orain
dik betixuak gure mendie-
tan. Egiz maite ditulako,
gordetzen aleginduz ban-
netan. Len, orain dala ogei
ta bost urte etxe askotan zi-
tuzten mendian betixuak.
Erriak gaileraiz zituan, ne-
gutan belar sorbetan sart-
zen zirakako eta zugaiz lan
dareak jaten zituztelako.
Beste guztiak kendu zituz-
ten. Mertxenea baserriko
nagusiak bi gorde zituan,
bat uruxa ta beste ixkoa.
Andik ugaritu dira beste
guziak. Bi arexetatik asita
25 urtean berrogetik gora

ugaritu ziran, Orain 22 urru-
xa ta 8 zezena ditu Urte-
ro ume bat izaten dute.

Aurten bixikiak ere euki
dituzte. Etxeko nagusiari
ats egin zaizkio betixuak.
Berak dion bezela: «Agiz
maite ditut. Tiptik ikusi
ditut eta orregatik maite
izaki. Txikia nintzeanean,
mendira eramaten ninduan
aitak eta bel txiki olek
erakusten zizkidan esanez,
—ara, ura betixoa da—. Il
arte nere inguruan ikusi
nai nituzke. Orain ba ditut
danetatik, beltzak, oriak,
arreak, gorriak, petroia».

Arraza azkeneko be-
renen urte aietan etxe on-
tan dago».

Iru arrazoi dituzte beti-
xuak eukitzeko. Esan de-
gun bezela maite dituzteko
lendabiz. Aragitarako
batez ere. Mendiko larre-
kin gizenzen dira ta ara-
gia ona ilun xamarra du-
te. Etxean pestetarako be-
ti txekori bat litzen dute,
baita txerri garaian bestea.
Gailera Goizueta'ko pes-
tetarako nai dituzte beti-
xuak. Iru egunetan atera
bear dituzte abuztuko Ama-
birjaretan, erriko festetan.
Ori Antonio etxeko semea-
ren lana da. Goizko bete-
ratuztan kalerako lasterka
zuzentzen du. Eguardi ar-
te bi betixi uzten dituzte
emparantz. Aisialdeko sele



Betixuak lasterka. (AIDA argazkia).

tan bost betixo ateratzen
dituzte ta aiekin lau tore-
ro ibiltzen dira ta gaila-
ra nai duten guztiak sar-
tzen uzten dituzte. Anto-
nio al dio: «Jendia ikusi
orduko asten dira adarre-
kin joka. Naiko gailza
urratzen dute, eskuak kor-
nisaen kontra artin ere bai.
Aurten sei mutil sendagi-
learengana eramane dituz-
te, bat elbarritu xamarra».

Festetako betixuen ordia-
fa uskeri bat izaten da
bainan gutxienez. Errikoet-
xeak mendian larrean ibil-
zen uzten die.
Goizueta'n festetako gau-

kendu bearrak ditugu, ez
bai dira bordan geiago sar-
zen».

Erriko bost sozioen ar-
tean beste 15 betixo jarri
dituzte orain dala gutxi.
Goizueta'ko betixo auk
merzi dute bear bezela
zaintzea. Bel basati auk
dira garai zarrenetako Eus-
kalerriko abelgorri bere-
xiak, illetsuak, azkarrak eta
gogorak. Gureak dira.
Errietan bear lituzkete
tokiak izendatu zaitzeko.
Merezi luke Nafarroa'ko
Diputazioan betixoen alde
zerbait egitea.

LATXAGA.



«Mertxene» baserria. (AIDA argazkia).

Azaroaren lenengo igan-
dean, betixuak ikusteko
asmatan, Goizueta'ra urbil-
du giñan.
Mertxene baserrikoak zeuz
katelakoa, etxe ontako
atea jo gurean. Etxekoan-

drea, emakume zoragarria
atera zitzaigun irripareez:
«Ongi etorri zerate. Etxe-
ko festa degu gaur. Gizon
denak, goizian goiz mendia-
ra betixuak joan dira ta
mordoxa bat onera jexi-
-